



GOGOETA, HAUTESKUNDE OROKOARRAK DIRALA-TA

2008.eko martxoaren 9a

Langile Pastoraltzako

Elizbarrutiko Idazkaritza. Bilbao.

Plaza Nueva, 4, 2^a. 48005. Bilbao

pobrera@barria.net // Tf: 944795617

www.bizkeliza.org/pobrera

2008.eko urtarrilaren 21a

GOGOETA,HAUTESKUNDE OROKOARRAK DIRALA-TA *2008.eko martxoaren 9a*

Joan dan urtarrilaren 14an, José Luis Rodríguez Zapatero Gobernuak presidentek datorren martxoaren 9an ospatuko diran Hauteskunde Orokorretarako deialdi ofiziala egin eban. Beste behin ere, Estatu espainiarreko herritarrok hauteskunde hitzordua dogu, Parlamentuan izango doguzan ordezkariak aukeratzeko. Ondo dakizuenez, espainiar Parlamentuari **GORTE NAGUSIAK** esaten jako eta bi ganberako egitura dau: **DIPUTATUEN KONGRESUA** eta **SENATUA**.



"Gorte Nagusiek Estatuak botere legegilea dabe, haren aurrekontuak onartzen babez, Gobernuaren jarduerak kontrolatzen dabe eta Konstituzioak egozten deitsozan gainerako eskumenak ditu" (Konstituzioaren 66, 2 art.)

Hauteskunde giroa

Estatu mailako alderdi nagusi bien arteko aurkakotasun sakonez eta ohiz kanpoko hasarrealdia eta amorrazinoz betetako lau urteren ostean, hauteskunde honeen iragarpen formala egiten jakunean, hauxe da bizi dogun unea:

- Zoritxarrez, bake itxaropenak zapuztu egin jakuz, ETAk, su-etenaren ostean, borroka armatuaren (terrorismoaren) aldeko apustua egin daualako eta "kale borroka" itzuli dalako, bate zere Euskal Herriko kaleetara.
- Langabeziaren, erosteko ahalmenaren eta inflazioaren adierazleak gero eta kezkarriagoak dira.
- Itxura guztien arabera, Poliziari eta Guardia Zibilari eskatutako behin-betiko txostenak aurkeztu ondoren, Fiskaltzak EHAK eta ANV-EAE legez kanpo izteko demandak aurkeztuko ditu Auzitegi Gorenean datozen egunetan. Aldi berean, aitatutako erakunde bion jarduera guztiak bertan behera iztea eskatu leikio Baltasan Garzón epaileari.
- 'Galeuska' plataformako kideek (EAJ, CIU eta BNG) euren programak koordinatzen dihardue, hauteskunde ostean eratu kodan Gobernu zentralaren aurrean euren jarrera negoziatzailea sendotzeko, Gobernuak, arazo zahar bati –gaur egun espainiar Estatu osotzen daben herri desbardinak egoki antolatu- konponbidea emongo leuskion diseinu politikoa bilatzera behartuz.
- Desadostasunak eta txarto ulertuak dagoz oraindik ere Gobernuaren eta Elizearen artean.
- "Espainia biak" barriro agertu dirala dirudi, herritarren zati batek Espainia laikoagoa eta hori ahalbideratuko leuken Estatu eskatzen ditualako eta beste zati batek nazioaren nortasun tradizionalari eutsi gura deitsoalako.
- Ohizko politika hondoratuta dago eta herriak gero eta gehiago erakusten dau politikaz, eta batez ere, bere ordezkariez, gogaituta eta nekatuta dagoala. Horren isla, abstentzinoa hedatu egin dala eta makina bat jarraitzaile dituala.

- Nahiko zaila da alderdi politikoak ideologia politikoaren –ezkerra / eskumea- bereiztea, *"grina lez ulertutako politikatik boterea administratzeko eta boterean irauteko politikara igaro garalako"*¹.

Guzti honen arabera, beste behin ere, martxoaren 9ko hautes-kundeetan gauza asko dagoala jokoan esan daikegu; esate baterako: normalkuntza politikoa; bakea; alkarrizketaren kultura sortu, gure aniztasun ideologiko, moral eta erlijiosoak danok aberastu gaizan; espainiar Estatua osotzen daberen herri desbardinaren antolaketa egokia; lan benin-behinekotasuna; lanpostu barriak sortzea; baztatu eta etorkinei arretza eskeintzea; gizarte hartuemonetan zentzun etikoa berreskuratzea, e.a., eta batez ere, etorkizunari beste era batera begiratzen lagunduko deuskun itxaropen barria esnatuazotea.



Askok gogoan izango dozue, orain hilabete batzuk, Udal eta Batzar Nagusietarako Hauteskundeak zirala-ta, aurkeztu geuntsuen gogoetan esaten geuntsuena: *"bistakoa danez, gaur egun, politikak sekulako itxaropenak biztu ebazaneko urteen ostean, baikortasun horregaz zerikusirik ez dauan aldia bizi dogu: herritarren aspertasuna, militantzia politikoaren gainbehera, makalaldi ideologikoa, akidura instituzionala eta politikoaren eta errealtatearen arteko egundoko distantzia"*².

Ba, harrezkero, denpora asko igaro da eta, zoritxarrez, ezer gitxi aldatu da herritarrek politikaren eta politikoaren aurrean daberen jarrera. Eta ez hori bakarrik, politikak ospea galdu dauala nabarmen erakusten eben orduko datu soziologiko hareen kopurua haunditu egn da eta, herritarren gizarte-bizi jarrerari begiratzen badeutsegu, politikaganako aldentze eta mesfidantzazko panoramak ere ez dau hobera egin. Horregaitik, begi-bistan dozuen gogoeta honetan, orduan aurkeztu genduan hainbat auzi aurkituko dozue.

Politikaren ospe-galtzearen arrazoi batzuk

1.- Politika, boterea lortzera eta botere horri eustera murriztea. Gure gizartean, ikuskera hau nagusitzen da politikaren inguruan: boterea lortzera, botereari eustera eta boterea gauzatzera zuzendutako jardura lez ikusten da. Ikuskera erredukzionista honek, 'elektoralismoari', gestinoari, administrazio publikoari lehentasuna emoteaz batera, burokrazia sortuazoten dau alderdi politikoaren bizitzan eta, honen eraginez, gero eta alde haundiagoa dago honeen eta baseen artean. Dagoeneko politika ia ez da herritarrek gizarte zibilean daberen eginkizuntzat hartzen eta, ondorioz, demokrazia, gizarteko esparru guztietan herri subiranotasunaren eraikuntzan parte hartzeko egitasmo lez, benetako edukin barik geratzen da. Oinarrizko militantea ia ez da beharrezkoa ere. Momentu puntual batzuetatik aparte, eskubideen subjektu pasibo

¹ José María Mardones, *Ser cristiano en la plaza pública*. PPC 2006. 26. or.

² Langile Pastoralzarako Bilboko Elizbarrutiko Idazkaritza. Gogoeta, datozan Udal eta Batzar Nagusietarako Hauteskundearen aurrean. 2007.

bihurtu da eta ez dau protagonismo eta partehartzerik arlo ekonomikoa lako gizarte bizitzako funtsezko esparruetan.


2.- Grina politikoen amaiera. Berlingo harresia jausi ondoren eta kapitalismo neoliberalaren demokrazia garaile atara danean, alderdi pragmatikoa nagusitu da alderdi ideologikoaren gaineratik eta grinatzat ulertutako politikari boterearen administrazio eta botereari eusteko kalkulu lez ulertutako politika gailendu jako. Errealismoaren izenean –askotan guztiz arrunta- politika, gero eta gehiago, kudeaketarako egitarau zehatzetan, jakintza teknikoetan, estrategia eta taktiketan,... oinarritzen da, gauza guzti honeek, sustatu gura diran balioen menpe egon behar dabela ahaztuz. Esperientziaren arabera, jarduera politikoa egitarau zehatzak kudeatzeari emoten jakola lehentasuna esan daikegu. Baina hori bakarrik ez da nahiko, zuzentasuna eta guztion ongizatea lortzeko grina daben pertsonak ere beharrezkoak dira. *Nork bere burua politikari eskeintzea, joko intelektual hotz huts ez ezik giza jarduera bihurtuko bada, grinatik baino ezin da sortu eta sustatu*³.

3.- Politika ekonomiaren menpe jartea. Azken hogeit edo hogeita bost urtetan, politikaren eraketea aldatu egin da: botere ekonomikoen estrategiari erantzuten deitso, Estatu eta gizarte zibila ikuskera kapitalistan oinarritutako merkatuaren logika ekonomikoak zuzendutako gizartearen zerbitzura jarteko. Hona hemen horren proba bat: hazkunde ekonomikoa, berez, zelanbaiteko dogma bihurtu dala eta horren alde edozer sakrifikatu behar dala. Gertakari honek ondorio negatibo ondo zehatzak dakaz, esate baterako: soldata baxuak, lan behin-behinekotasuna, zerga politika atzeragarriak, gizarte zibilaren zatiketea, 'barruan' eta 'kanpoan' dagozan gizabanakoen arteko tarte gero eta haundiagoa, e.a.

Eta politikoez ezin deitsoe aurre egin arazo honeei, aspaldi D. Bellek nabarmendu ebanagaitik: *"Estatu-nazinoa txikiagia da arazo ekonomikoak konpontzeko eta haundiegia nortasun arazoak konpontzeko"*.

4.- Kultura giro postmoder-noa. Laurogeiko hamarkadan gertatutako kultura aldaketek konpromisoa, zuzen-tasuna, bardintasuna, iraultza, aldaketa estrukturala lako kon-tzeptuak zalantzan jarten ditu, eguneroko hedonismo txikiari (postmo-dernitate) atxikitako jarrera indibidualistei pasatzen itziz.

Gure ustez, aitatu doguzan lau eragile honeek behintzat herritarrek jarduera politikari erantsten deitsoen ospe-galtzearen ostean dagoz. Horri alderdi politiko europar eta espainiar guztietan hedatuta dagoan ustelkeria kasuen eskandalua gehitzen badeutsagu, ez da harritzekoa jentearen jarrera abstentzinoa izatea, baita esparru zehatz eta hurbilagoetan, esate baterako, udal eta lurralde historikoan, parte hartzeko dei giten jakonean ere.



Desengainu politikoak, mundu globalizatuan arazo estruktural haundien aurrean sentitzen dan ezintasunak, benetakoa baino formalagoa dan demokraziak,... eragina izan dabe, dalako egun baten alderdi politikoen bidez *"Jainkoaren Erreinuaren eta bere*

³ Max Weber. *La política como profesión*. Espasa Calpe. 1992. 146. or.

zuzentasunaren" alde egin eban eta gaur egun horretarako Gizarte Mugimendu Barriak deitutakoak aukeratu dituan kristinau askorengan.

Gaur egun kontuan hartu beharreko jarrera eta erizpide batzuk

1.- Erantzukizun zibikoa. Bizitza demokratikoan, partehartzea ez da gizon eta emakumeen eskubidea bakarrik, betebeharra eta erantzukizuna ere bada, guztion artean eta guztion alde, gizakiaren garapena ahalbideratuko dauan giro sozial eta politikoa sortzeko betekizuna dogulako. Horregaitik, ez gaur egun politikak jasaten dauan ospe-galtzea ezta arnasten dihardugun giro kultural indibidualistak ere, ez gaitue herri partehartzetik aldenduko gaituen jarrera eszeptikoetara eroango. Argi izan behar dogu une honetan politika demokratikoak dauan arriskurik haundiena konformismoa dana (*"gizataldeak ez dira nazi -edo antzerako- bihurtzen errebelamenduz, honen aurkako dan konformismoz baino"*⁴)

*"Sarritan gobernuko, parlamentuko edo klase menperatzaileko, alderdi politikoko gizoni zuzentzen jakezan salaketek -goranahia, boterearen idolatria, norberekeria eta ustelkeria- eta politika, nahitaez, arrisku moralerako lekua dala adierazoten daben eritziek ez dabe justifikatzen, ezta gutxiago ere, kristinauak auzi publikotik desagertzea edo horren inguruan daben eszeptizismoa"*⁵.

*"Guztion onerako gauzak hobeto egin daikeezala uste dogunak izendatzea gizalegezko betebeharra da eta, printzipioz, baita etikoa ere. Zaila da, gaur eta hemen, botorik ez emotea guztion ongizatearen alde egiteko bide egokia danik justifikatzea"*⁶.

2.- "Guztion ongizatearen" alde egitea. Hauteskunde honeen erronka ez dira ez PSOE eta PPren interesak ezta gainerako alderdi politikoena ere. Jokoan dagoana zera da: herritarren eguneroko bizitzako arazoak (etxebizitza, lana, hezkuntza, osasuna,...)

zelan kudeatuko eta konponduko diran. Horregaitik, hauteskundeak "guztion ongizatearen" aldeko tresnatzat hartu behar doguz. Horren argira emongo dogu aukera politiko desbardinaren inguruan dogun erizpidea, hautatuek ondorengo lortzeko ahalegina egin beharko dabelako:

*"Oparotasun ekonomikoa, gizarte zuzentasuna, behar besteko pentsino duinak, osasun arreta egokia, belaunaldi gazteak balioetan hezte, emakumezkoaren egoera hobetzea, familia babestea, kultura eta hizkuntza politika zabala, herri pobreekazko alkartasuna eta bertako etorkinak onartzea, eta, gauza guztien gainetik, giza bizitzaren defentsa eraginkorra ibilbide osoan, lehenengo unetik bere azken arnasara arte"*⁷.



⁴ I. Kertész. Nobel Saridun hungariar-judua.

⁵ Chistifideles laici. Joan Paulo II.a. 1988. urtea. 42. zenb.

⁶ Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainak, *Egian eta askatasunean botoa eman*. 1998.

⁷ Iruña, Donostia, Gasteiz eta Bilboko Gotzainak, *Bakerako Botoak*. 1987. 58. zenb.

3.- Jaungoikoaren Erreinuaren eta honen zuzentasunaren aldeko aukera.

Hauteskunde orokorrak lako gertaerak aukera ona dira kristinauok, beste behin ere, fedea eta politika lotuta dagozala jabetu gaitzan.

Jaungoikoa gizakiaz arduratzen bada, biziki arduratzen da, era berean, bizitza kolektiboa antolatzen dan esparruaz, politikaz. Horregaitik, "Jaungoikoaren Erreinuaren eta honen zuzentasunaren" aldeko aukereak ere alderdi politikoa izango dau.

"Gizateriaren garapen edo suntsipenari estu lotuta dagozan onaren eta txarraren aldeko borroka, Jaungoikoaren egitasmoen aurrerapen edo atzerapena ez dira gizakiaren bihotzean edo norbere, familiako eta lagunarteko bizitzaren esparrurik murriztuenetan jokoan jarten bakarrik. Onaren eta txarkeriaren indarrek bizitza sozial eta publikoan ere jarduten dabe, geure jokaeren bidez, gizakien bakea, hazkundera eta zoriona eraginez edo galarazoz"⁸.

4.- Nortasun nazional desbardinak bakea lortzeari begira kudeatzen lagunduko deuskun formula bilatu.

XX. mende amaierako eta XXI. mende hasierako joera ez da nortasunak desagertzekoa, nortasunak sentotzekoa baino. Historikoki eraikitako nortasunak gainditu eta dalako kultura unibertsal batez ordezkatu nahi ebezan egitasmo arrazionalista haundiek porrot egin eben. Honek hausnartzera egoan behar gaitu, botoa emoterakoan, proposamen politiko batzuk kontuan hartu dagiguzan: guztien arteko alkarrizketearen bidez, Estatu espainiarrean, erabat edo neurri baten, kontrajarrita eta gaztazkan dagozan nortasun nazio-nalen bizikidetasunerako konpon-bidea ekarriko dauan formula politikoa adosten lagunduko deuskuna.



"Herri hau baketzeak berekin ditu, jakina, ETaren amaieera eta honi aurre egiteko ahalegin garbi eta bateratua. Baina bakea iristeko konpondu behar diran arazoak ez dira hor bukatzen... Nortasunen aniztasun gatazkatsu honek bizikidetzatza formula bat eskatzen dau non talde bakoitzak bere helburu zilegiak moderatu dagizan gizartea baketzeko, hori askoz balore ederrago eta beharrezkoagoa da-ta talde guztien helburu guztiak bete ezin izatea baino... Nortasun kontrajarriz osatutako pluraltasun hau kontu handiz kudeatzen jakin beharra dago nortasunen arteko gerra bilakatu ez daiten"⁹.

5.- Errealismoa. Gure konfiantza alderdi politiko edo koalizino jakin batean edo bestean jartean, guztiz garrantzitsua da dalako alderdi edo koalizino hori herritarrengan eragina daben arazo zehatzetatik baloratzen jakitea, eta, arazoan aurrean, proposamen zehatz, ebaluagarri eta egingarriak eskeintzen dabezan ikustea. Normalean, proposamenik utopi-koenak ez dira onenak izaten, errealismoari utopia tanta batzuk eransten deutsoezanak bai, ostera. Errealismotik baloratu behar do-guz, era berean, proposamen politikoak egiten dabezanen eta noneen atzetik dagozanen jardue-rak eta jarrera.

"Alderdi politiko bati botoa emotea ez da heredatutako ohitura mekaniko hutsa izango. Boto aske eta arduratsua,



⁸ CEE. Katolikoak Bizitza Publikoan, 1986. 57. zenb.

⁹ Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainak, *Bakea prestatu*. 2002. 5. zenb.

*hain zuzen ere, proposatzen diran egitarauen, horreek aurkezten dabezan alderdien eta horreek aurrera eroateko konpromisoa hartzen daben pertsonen azterketa zorrotzaren ostean emoten dana da*¹⁰.

6.- sistema aldaketea. Demokrazia diruaren edo gure gizartean nagusi dan sistema ekonomikoaren (ekoizpena eta kontsumoa) esku akabatzea galarazo gura badogu, gure botoak alderdi edo koalizino bakoitzaren atzean dagoan sistema ekonomikoa kontuan hartu beharko dau. Aurreko atalean aitatu dogun errealismoak hauxe dinosku: gaur, gure artean, ezin dala epe laburrera bideragarria dan alternatiba ekonomikorik aurkeztu. Dana dala, aukera politiko desbardinek ondorengo kanpaina honeei edo antzekoei emoten deutesen babesean erreparatu daikegu: Bidezko Merkataritza, %0,7 entzutetsua, herrialde pobrenei kanpo zorra parkatzea, Tobin tasa, etorkinei harrerea egitea, miseriaren aurkako Munduko Fondoa, herritarren oinarrizko errentea, aurrekontuetan partehartzea, "beste mundu bat eraiki daikegu" goiburudun Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroa, e.a.

*"Sistema ekonomiko honek merkatu librea, ekimen askearen eta lehiakortasunaren errespetua lako adierazpen hain anbiguoaren ostean ezkutatu gura dau, gizakien arteko alkartasun eta senidetasun hartuemonak sustatzeko gauza ez dan mentalitate batez ere ekonomizista eta materialistadun gizarte sistema dalarik*¹¹.

7.- Laikotasuna. Gaur egun Gobernuaren eta Elizearen arteko desadostasun eta txarto ulertuak dagoz eta, neurri haundi batean, bi arrazoirengaitik: alde batetik, laizismo oldarkor eta antiklerikalak bizirik dirauialako eta, bestetik, fededun giro batzuetan ez dakielako zelan kokatu gizarte demokratiko eta pluralista honetan. Gure eritziz, bizi dogun une honetan, erakunde biek jokoan dagozan jarrera guztiek parte hartuko daben gizarte eztabaidaren frutu dan laikotasun eredu baten alde egin behar dabe. Honen arabera, Estatuak uko egin beharko deutso ikuskera edo ideologia jakin bat presionatzeari edo ezartzeari¹², eta, bestetik, Elizak ahalegina egin beharko dau, "bere egiazat dauanaren baieztapena gizarte demokratikoaren berariazko askatasunaren defentsagaz bateragarri egiteko, Estatuaren laikotasun 'sanoa' autortuz alkarte politikoan"¹³.



Bilbao, 2008.eko urtarrilaren 21a
Langile Pastoraltzarako Idazkaritza

¹⁰ Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainak, *Bakea prestatu*. 2002. IV.

¹¹ La Iglesia y los pobres : N° 38

¹² "Gizaki orok pentsamendu, kontzientzia eta erlejino askatasunerako eskubidea dau", Nazio Batuen Adierazpena, 18. art.

¹³ José María Setién. *Laicidad del Estado e Iglesia*. PPC. 2007. 55. or.

HAUTESKUNDE SISTEMA

Diputatuen Kongresurako zein Senaturako aukeratutako sistemea D'Hondtena da. Sistema hau D'Hont matematiko belgikarrak asmatu eban XIX. mende amaieran eta helburu politiko bikoitza eban: alde batetik, Belgikan sasoi haretan egoan alderdi-aniztasuna gitxitu gura eban eta, bestetik, alderdi nagusiei lehentasuna emon, herrialdearen gobernagarritasuna eragingo eukien gehiengo egonkorrek ahalbideratzeko edo eragiteko.

Hauxe da zinegotziak banatzeko erabilten den mekanismoa edo prozesua: taula bat egiten da, alderdi bakoitzak lortutako botoak barruti bakoitzari jagokozan aulkien arabera zatituz (zati 1, 2, 3, 4...). Esate baterako, 8 diputatu aukeratu behar dira eta A alderdiak 60.280 boto lortu ditu, B alderdiak 52.416 boto, C alderdiak 39.892 boto eta D alderdiak 21.615 boto.

A	60.280 (1º)	30.140 (4º)	20.093 (7º)
B	52.416 (2º)	26.208 (5º)	17.472
C	39.892 (3º)	19.946 (8º)	13297
D	21.615 (6º)	10.807	7.205

AINZAT HARTZEKOAK

Botoa zuriz. Sistema demokratikoa bultzatu gura dala, baina, hainbat arrazoiengaitik, hauteskunde eskeintza bakar batez ere ez datorrela bat adierazoten dau boto honek.

Abstentzinoa. Hauteskunde egunean botoa emotera ez joatea esan gura dau. Aktiboa edo pasiboa izan daiteke. Aktiboa, ardura politikotik egindako abstentzinoa da. Politiko edo alderdi jakin batzuk zigortzeko errea izan daiteke, edo beste jarrera politiko desbardin batzuk agertzera emotekoa. Pasiboaren ostean, axolabakokeria, pasotismoa, erosotasuna, e.a. egoten da.

Boto baliobakoa. Akats teknikoak (urratuak, e.a.) dituan botoa da, edo boto emoileak berak, ardura beteaz, hauteskunde aukeren aurrean, beti ere demokrazia sistema egokitzen joz, bere desadostasuna erakutsiz emoten dauan botoa.

DIPUTATUEN KONGRESUA


- Gaur egun 350 aulki ditu. Bizkaitik 9 dagoz.
- Herritarren ordezkartzarako ganbera da.
- Sufragio unibertsal, aske, bardin, zuzen eta sekretuaren bidez aukeraten dira kideak.
- Hauteskunde barrutia probintzia da.
- Gitxieneko ordezkartza probintzia bakoitzeko bikoa da; gainerakoak honan hautatzen dira: probintziako 144.500 biztanle bakoitzeko beste diputatu bat gehiago.
- Lau urterako aukeraten da.

SENATUA

- Gaur egun 259 senatarik osotzen dabe. Bizkaitik 4 dagoz.
- Orain hautatzen doguzan senatariek (208) eta Autonomia Erkidegoko azken hauteskundeetan ordezkari aukeratutakoek (51) osotzen dabe Senatua.
- Lurralde ordezkarietarako ganbera da.
- Lurralde, funtsean, probintzia da: probintzia bakoitzeko 4.
- Gainera, beste honeek ere ordezkatzeko dira: ordezkari bat izango daben Alkarte autonomoak (organo legegileek aukeratzen dabe) eta beste ordezkari bat miloe biztanle bakoitzeko (sistema beraz aukeratuta).
- Lau urterako aukeratzen da.

Itaunketea taldeka lantzeko

- A) *Zure inguruan, ze giro antzematen dozu datozen hauteskundeetan aurrean? Jarri adierazo dozuna islatzen dauan adibideren bat. Ze jarreraz hartzen dozuz martxoaren 9ko hauteskundeak? (Ekarpen pertsonalak aurkeztu ondoren, bat aukeratu. Aukeratutako hori landuko da hurrengo itaunetan)*
- B) *Aurreko puntuan aukeratu dozuen jarrera eragiten daben arrazoi batzuk aitatu..*
- C) *Ze ondorio izan daike jarrera horrek demokraziarentzat, guztion ongizatearentzat, bakearentzat, bizikidetasunarentzat eta pobreentzat?*
- D) *Gogoetan jasotzen diran jarrera eta erizpideak irakurri, eta zuk pentsatzen dozunaren arabera, zer deritzozu kontuan hartu dogun jarrerari?*
- E) *Zure eritziz, ze arazori erantzun beharko leuskio hurrengo Gobernuak?*



Secretariado Diocesano de Pastoral Obrera
Langile Pastoraltzako Elizbarrutiko Idazkaritza
Plaza Nueva 4,21 48005 Bilbao, tfno: 944795617
e-mail: pobrera@barria.net // www.barria.net/pobrera